


# BERRIGARA

31. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, apirilak 19

**Estatuko  
gazte mailako  
txirrindulari  
onenak Bergaran**

**Ortuak nonahi**

**OPEL**



**TALLERES  
OLA**

Olabarren auzoa z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.



# LENIZ ALUMINIOAK

*Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.*

## Gure leihoen ezaugarriak:

- Oskilo batienteko leihoa.
- Junkilo eta orria apaingarriagoa den borobilean.
- 60 mm.ko markoa eta 60 mm.ko orria.
- Seguritateko ferraketa erregulagarria.
- Ganbara isolagarriko kristala.
- Erreforzuko ganbara duen kaxoi termikoa.
- Poliuretanozko bitsez beteta dagoen pertsiana.


## Gure instalakuntzaren ezaugarriak:

- Poliuretanozko bitsarekin instalakuntza.
- Barrualdea perlieskaiolazkoa eta kanpoaldea zementuzkoa.
- Egurrezko kaxoien hutsuneen errematea.

## Oharra

Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da, aurrez aipatutako ezaugarriekin.


BI ORRIKO ATEA



BI ORRIKO LEIHOA



BI ORRIKO LEIHOA



**P.V.C.an udaberriko beharapen bereziak!**

ORRI BATEKO LEIHOA



Leihoen neurria zure beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...

# LENIZ

Erakusketa eta salmenta:

Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu



## Z E B E R R I D A ?

## E S A N D U T E

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
T: 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

**Argitaratzailea:**

JARDUN Elkarte.

**Zuzendaria:**

Alex Azkarate

**Erredakzioa:**

Eduardo Mendibil

Alex Elkorobereziabar

Alex Larrañaga

**Maketazioa:**

Alex Azkarate

**Publizitatea:**

Alex Azkarate

**Harpidetzak:**

Borka Elortza

**Bestuen zuzenketak:**

Esteban Plazaola

Haripi Laskurain

Alex Labaien

**Erredakzio kontseilua:**

Borka Elortza

Miguel Angel Elkorobereziabar

Alex Labaien

**Colaboratzaileak:**

Itziar Azkondo

María Urzelai

**Omikiak:**

Arturo Rodriguez

Borka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Alex Azkarate

**Manaketa:**

Manixangorri taldea

**Irada:**

300 ale.

**Primategia:**

Artu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**Copyright:**

BERRIGARA

**Lege gordailua:**

550/91

**ISBN:**

7603-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Berrizko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntza jaso du

## MIGUEL ANGEL MUELA


### Xake Federazioko presidentea

- Bergarako Xake Taldeko XXV. urteurrena ospatzeko ekitaldi berezirik egingo da?

- Ekainaren lehen astean hainbat ekitaldi izango dira Bergarako xake taldeko zilarrezko eztaiak ospatzeko eta ekainaren 1ean Guinness errekorren liburuan sartzeko ahalegina egingo dugu. Helburua 5.000 lagun xakean jokatzeko jartzea izango da eta horretarako Gipuzkoa osoko jokalariek izango dira.

- Horrez gain, beste ezer?

- Maiatzaren 30etik ekainaren 9ra erakusketa bat antolatuko dugu Kultur Etxean. Herriko kolektibo ezberdinek hartuko dute parte erakusketan eta Beart artisten elkarteak, adibidez, xa-



kearekin zerikusia duten koadroak, eskulturak, eta abarrak egingo dituzte. Era beran, argazkiak, aukeratutako liburuak, konputadora txikiak edo sei luak ikusi ahal izango dira.

- 25 urtetan asko aldatu al da Bergarako Xake Taldea?

- Pentsa ezazu, 10 lagun hasi ginen eta gaur egun 100 bat gabiltza...

### "Ekainaren 1ean Guinness liburuan sartzeko ahalegina egingo da Bergaran"

## I T U R R I O N E T I K

### Bostehun bat dantzari Bergaran maiatzaren 19ko Haurren Egunean

Maiatzaren 19an ospatuko den Haurren Egunean 500 bat dantzari biltzeko asmoa daukate antolatzaileek. Aurtengoa Haurren Egunearen XXIII. edizioa izango da eta Pazkuetako jaien aurreko igandean 11 dantza talde izango direla espero da. Euskal Herri osotik 15 urtera arteko dantzariak etorriko dira eta Aranzadi Ikastolako dantza taldea izango da Bergarako ordezkaria, 65 bat dantzarekin. Era berean, Jardun eta Moises Aspiazu dantza taldeko trikitilariak egun guztian zehar arituko dira herriko kaleak alaitzen eta Kobok dultzainero taldeak eta Musika Eskolako txarangak ere dantzarien festan parte hartuko dute.

"Hemen [San Antonen] lehenago, domeketan egoten ziren 18-20 bat gizon eta emakume errosarioa errezatzen. Eta geu, mutikoak, pilotan hor. Alkateak esan euskun bota egingo zela hau. Guk zer egingo dugu ba derrigorra bada? Lehenago bota izan dira. Elgoibarren ere bota zeben San Antolin. Orain dagoen baino beheratxoago egingo da. Hori bai behintzat! Kendu behar bada, ba kendu, baina beste nonbaiten jarrita!"

**ROMAN MUGURUZA**  
Beheosin baserrikoa  
EGUNKARIA

"Ez zait oso bidezkoa iruditzen Otano jauna Itoitzeko ekintzari buruz esaten ari dena, ez komunikabideen jarreraren inguruan eta ezta sabotajea estrategia politiko-militar baten barruan sartu behar dela esaten duenean ere"

**IÑIGO URRUTIA**  
Deiako kazetaria  
EGUNKARIA



**HEAT**

Ostirala: 22:30.  
Larunbata: 22:30.  
Igandea: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**A CASA POR VACACIONES**

Larunbata: 17:00, 19:30.  
Igandea: 17:00.

**CYCLO**

Osteguna: 20:00 (Zine-kluba).

**Zinea**

▼▼ **Al Pacino** eta **Robert de Niro** aktore ezagunak aurrez aurre ikusteko lehendabiziko aukera. Los Angelesko hirian, *Vincent Hannah* poliziak (**Pacino**) *Neil Mc Cauley* lapurra (**De Niro**) harrapatzeko ahal duen gutzia egingo du baina ez da lan erreza izango, *Mc Cauley* profesional bikainez inguratuta baitago. **Michael Mannek** (*Corrupción en Miami*) zuzenduta, 3 orduko iraupena duen filmea.

▼▼ *El pequeño Tate* filmearen arrakastaren ondoren, **Jodie Foster** aktoreak (*Acusados, El silencio de los corderos*) zuzendu duen bigarren filmea. Oraingo honetan komedia bat egin du, familia baten inguruko gorabeherak azalduz. **Holly Hunter**, **Robert Downey Jr.** eta **Anne Bancroft** aktore ezagunak erreperto buruan.

▼▼ Gaur egungo Vietnamen girotu du bere azken filmea **Tran Anh Hung** zuzendariak (*El olor de la papaya verde*). Bere aiton-amonekin bizi den gazte batek ziklo-taxi batekin egiten du lan. Lanerako duen tresna bakarra lapurtuko diote eta orduan lapurretan hasiko da, bizitzari buruz duen ikuspegia erabat aldatuz. Bizimodu horretan sorpresa ederra hartuko du...

**Deiak**

▼ "**Galindo** sarea eta droga trafikoa"ri buruzko hitzaldia astelehenean 7etan Kultur Etxean. Hizlariak: Pepe Rei eta Txus Congil.

▼ **1943ko kintonen** anaiarteko eguna apirilaren 27an. Arratsaldeko 7etan meza Santa Marinan eta 9etan afaria Antxoni jatetxean.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 18:30etan Seminarioan.

▼ **Bideoa.** Jardunek antolatuta "David Coperfield" haurrentzako bideoa bihar 11etan Kultur Etxean.

▼ **Kafe-antzerki** emanaldia ostegunean 10etan Pol-Polen.

▼ **Euskal Eskola** Publikoaren festara Gasteizeko Mendizorrozan igandean joateko deia lizatu du herriko eskola publikoek.

**Ogia**

▼ **Igandea 21:** Konde.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 19:** Estella/Morales.
- ▼ **Larunbata 20:** Mozos/Azkoaga.
- ▼ **Igandea 21:** Mozos/Español.
- ▼ **Astelehena 22:** Camacho/Corcuera.
- ▼ **Asteartea 23:** Puy/Irizar.
- ▼ **Asteazkena 24:** Guallar/Amezua.
- ▼ **Osteguna 25:** Estella/Ruiz.

**IBARGUREN PENTSUAK**

**Biona pentsuen biltegia**  
**Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



# Mikel Diez gogoraturaz

## Bere oroimenezko jaialdia Zugarramurdin asteburuan

**Mikel Diez** zenaren oroimenezko jaialdia izango da astebukaera honetan Zugarramurdin, Nafarroan. Mikel Diez Kilimiliklik txotxongilo taldean ari zen lanean eta bere lankide eta lagunek omenaldia eskeini nahi izan diote. Inñaki Mata Taun-Taun taldeko kideak aipatu digunez, "hasieran kontzertu bat egitea pentsatu zen baina Unima txotxongiloen nazioarteko elkartearen Durangon bildu eta beste zerbait egiteko proposamena aztertu genuen. Azkenik, Unimako euskal talde guztiak bildu eta Mikel Diezi omenaldi bat egitea erabaki zen eta talde guztiak borretarako prest azaldu ziren. Gure esperientziak konpartitzeko eta Mikel Diez gogoratzeko aukera ezin hobea izango dela uste dugu".

### Txotxongiloekin lanean

Mikel Diez, esan bezala, Kilimiliklik taldean ari



Mikel Diez "Txoko-latex" saiorako egindako panpinekin.

zen Estefania Erro neska lagunarekin batera. Mikel Arte Ederretan lizentziatua zen Leioako Unibertsitatean eta, besteak beste, Kukubiltxo taldearekin kolaboratu zuen "Umeak gara eta zer?", "Jalgi hadi dantzara" eta "Malinche"

lanetan. Ondoren, Jaurritzaren beka bati esker, Mines de rien talde frantziarrarekin lan egin zuen, eta jarraian Charleville-Meziereko Nazioarteko Txotxongilo Eskolan kurtsu bat burutu zuen. Munduko talderik ospetsuena, tangoa den Philippe Genty taldean ere izan zen kolaboratzaile lanak egiten eta handik gutxira telebistarako hainbat lan egin zituen. Horrela, Euskal Te-

lebistako "Txoko-latex" saiorako panpinak egin zituen eta Antena 3-eko "El juego de los anuncios" programan ere lan egin zuen. Mikel Diez pasa den martxoaren 4an hil zen 28 urte zituela.

Astebukaera honetarako programazio zabala prestatu dute Kilimiliklik eta Taun-Taun taldeek. Ekitaldiak bihar larunbata, apirilak 20, arratsaldeko 6etan hasiko dira eta bertan Bergarako bi taldek hartuko dute parte. Batetik, Taun-Taunek "Bikate" antzeslana eskeinko du bihar 7etan Zugarramurdiko Frontoiko tabernan. Bestetik, Kukuma hankapalu taldeak kale emanaldia egingo du igandean goizeko 11etan Kukubiltxo, Bihar, Tenderete eta lehen aipatutako Mines de rien taldeekin batera. Larunbateko 8 t'erdietarako afora iragarrita dago eta ondoren, 11 t'erdietan, musika kontzertua izango da. Omenaldiari amaiera emateko igandean 3retan titiriteroen bazkaria izango da eta bazkarian zehar Retablos de figuras taldeak topaketarako prestatutako istorio labur bat eskeinko du.

**Begarako Taun-Taun eta Kukuma taldeak izango dira, Euskal Herriko beste hainbat talderekin batera**

Irizar, 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**



### KORTA-ZAR

#### Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko  
espezialitatea

**OSTIRALETAN GOIZEKO  
9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62



## Periodikoak

Aurreko batean Udal Liburutegira joan nintzen Kultur Etxera, atzeratutako egunkari bat kontsultatzeko asmoz. Baina ezin izan nuen nik nahi nuen informazioa jaso liburutegian ez dituztelako egunkari guztiak asteko egun denetan hartzen.

Karta honen bitartez Udal Liburutegiko arduradunei gutxienez Euskadiko egunkariak erosteko eskatu nahi nieke. Beste herri batzuetan jende asko joaten da liburutegira egunkariak irakurri, kontsultak egin edo notiziaren batekin zerikusia duten klaseko lanak egitera.

Oñatiko liburutegian, esate baterako, hemeroteca daukate eta orain 10 urteko egunkariak ere kontsultatzeko aukera dago. Bergaran, berriz, aurreko asteko egunkariak jasotzeko zorte haundia izan behar da. Entzun dut liburuentzako tokirik ere ez dagoela eta egunkariak non bildu ezinik ibiltzen direla, baina irtenbide bat aurkitu behar zaiola uste dut.

Ez dut uste gehiegi eskatzea denik eta gainera jende askori mesede egingo liokeela ziur nago.

G. M. (NAN: 15.483.982)

## Pasiatzeko tokiak

Ez egunero, baina astia daukadanean, sarritan, pasiatzera irtetzeko ohitura daukat. Askok gustatzen zait, osasungarria da eta gainera eguraldi ona egiten duenean batez ere, arratsaldea primeran pasatzeko plan ederra da.

Hala ere, keja txiki bat daukat. Trenbide zaharretik ibiltzen naiz askotan eta esan behar da bidea ez dagoela oso ondo. Konpontzea komeniko litzateke eta hainbat tokitan zuloak tapatu edota zolan zementoa edo beste zerbaitez botatzea. Labegarieta eta Ipiñarri inguruan zulo bat baino gehiago dago eta euria egiten duenean sekulako potzuak izaten dira. Toki batzuetatik pasatzeko sekulakoak egin behar izaten ditugu.

Hainbeste kostako al da ba zorua konpondu eta zulo horiek tapatzea. Bertatik ia egunero ibiltzen direnek eskertuko lukete.

R. S. (NAN: 15.384.257)

## Argi falta

Karta honen bidez Beheko Estazioan Labegarieta bitartean dagoen argi falta salatu nahi dut. Benetan beldurgarria da gau aldera inguru horretatik ibiltzea eta lehen bait lehen argiak jartzeko eskakizuna luzatu nahi diot Udaletxeari istripuren bat gertatu aurretik.

Astean zehar neska-mutiko pila bat ibiltzen da hortik kiroldegira joateko Mayc-eko langile ugari ere bertatik pasatzen da eta behin trenbide zaharretik tunela pasatutakoan errepidea ilunetan zeharkatu behar izaten dute. Beraz, berandu izan baino lehen, hobe beharrezko neurriak hartzea.


Lehen ere Berrigara aldizkarian gauza bera eskatzen zuen karta bat publikatu zela uste dut baina dirudienez ez zioten kaso haundirik egin orduan idatzi zuenari.

Ea ba behingoz argiak jartzen diren kontrako kasuan, etxerako bidea hartzerakoan, linterna eraman beharko dugula eta. Kotxea ez dugunontzat eta oinez zein bizikletan ibiltzeko ohitura daukagunontzat oso peligr osoa da.

Labegarietako eta inguruko auzokideon eta kiroldegia erabiltzen dutenen aspaldiko eskakizuna da eta horri konponbidea emateko ordua dela uste dut.

A. F. (NAN: 72.593.485)

## Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ





**Haurren Eguneko bilera**

Astehenean, hilak 22, maiatzaren 19an ospatuko den XXII. Haurren Eguneko antolakuntzari buruzko bilera izango da 20:30etan Pertxa elkartearen. Herriko elkarte guztiei bertara joateko deia egiten zaie.

**Jardunean-en aurkezpena**

Asteartean *Jardunean*, Jardunek hilero bazkideei banatzen dien buletin, aurkeztuko da 19:30etan Gartzelan.

**Zozketa**

Mariaren Lagundiko ikasleen zozketan 394 zenbakia saritua izan da. Irabazleak 76 25 40 telefonora dei dezake.

**Bandaren kontzertua**

Goizeko 10 t'erdietako kalejiraren ondoren, Udal Musika Bandak kontzertua eskeiniko du igandean 12.30etan Novedadesen.



Prentsaurrean azaldu zuten, HBko zinegotzi taldeak ezezko botoa emango die aurrekontuei.

**Udal aurrekontuak onartuko dira asteleheneko Plenoan**

Asteleheneko Plenoan Udal Gobernuko alderdiek 1996ko udal aurrekontuak onartuko dituzte. Aurtengo presupuestoa 1.774 milioi pezetakoa da, joan den urteko aurrekontuarekiko %8ko beherapena eman delarik. Pertsonal gastuak (561 milioi) %6,4 igo dira, interesak (187 milioi) %16,2, inbertsioak (193 milioi) %53,9 jeitsi dira eta kapital transferentzietan (41 milioi) eta aktibo finantza aldaketetan (7 milioi) %59,8 eta %48,1eko igoera izan da.

Sarrerei dagokienez,

berriz, zerga zuzenak (346 milioi) %1,8 jeitsi dira, zeharkako zergak (55 milioi) %25 igo, ondasun sarrerak (15 milioi) %73,8 jeitsi eta pasibo finantza aldaketetek (175 milioi) eta kapital sarre- rek (236 milioi) %34,2 eta %47,1ko beherakada izango dute.

**HBren osoko enmendakina**

HBk asteazkenean prentsaurrean aurreratu zuenez, astehenean ezezko botoa emango die

aurrekontuei, osoko enmendakina aztertuz. HBko zinegotziek salatu zuten, "aurrekontuak denon artean landu behar-ko genituzke eta ez dugu eztabaidarako aukerarik izan. Bestalde, Udalak bere autonomia izan behar-ko luke eta ikusten dugu izugarritzko dependentsia duela".

HBkoen ustetan inbertsio oso gutxi eta partxeo politika ikusten da. Era berean, herriko ondasunak (ura adibidez) hobeto aprobetxatu eta politika dinamikoagoa aldarrikatu zuten.

**HILDAKOAK**  
 Teodoro Zabala Igartaburu  
 Apirilak 16, 86 urte

**JAIOTAKOAK**  
 Paulo Aspiazu Larrañaga  
 Apirilak 1  
 Maialen Goizelaia Losada  
 Apirilak 3

Industria hornikuntzak  Industriaren alde

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE • Telefonoa: 79 42 22 • Faxe: 76 47 89 Santa Kruz, 25 ARETXABALETA • Telefonoa: 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



### Traste zaharren bilketa


Apiriletik aurrera traste zaharren bilketa hileko lehen asteazkenean egingo da. Traste zaharrak goizeko 8ak baino lehen atera beharko dira zabor puntuetara. Apirilean traste zaharrak ateratzerik izan ez dutenek Angiozarrerako bidean dagoen hondakinen zabortegira eramateko aukera dutela jakinarazi du Udalak.

### Jubilatuen oharra

Maiatzaren 17tik ekainaren 15era bitartean Alcoceberren (Castellon) egonaldia egiteko interesa duten jubilatuak Bergarako Jubilatuen Egoitzan (76 21 40 telefonoa) edota 900 43 43 43 telefonoan jaso dezakete informazioa. Era berean Erromara bidaiara egin ahal izateko argibideak emango dira.

### Zerga aitortpeneko araudia eta minusbaliak

Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak jakinarazi duenez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegi berria (Gipuzkoako aldizkari ofiziala, 56. alea) bi aldaketa agertzen dira minusbaliak erikusia dutenak. Batetik, etxetik kanpora lan egiten duten gutxituek (%33ko minusbalia baino handiagoa dutenek) laneko irabazi gordinen %15a (gehienez 600.000 pezeta) deduzitu ahal izango dute. Bestetik, %75eko minusbalia eta hirugarren baten laguntza beharra arautzen duen baremoan 40 puntutik gora dituen gutxitu bat bere kargu duenak, 54.000 pezeta deduzitu ahal izango ditu. Gipuzkoako Foru Aldundiak interesatu guztiei bidaliko die minusbalia egiaztagiria.



Artxiboko argazkian, Javier Yeregi udal arkitektoa arau subsidiarioak azaltzen.

## Diputazioak arau subsidiarioak onartu zituen asteartean

### Herriko planeamendu orokorra jasotzen da arauetan

Gipuzkoako Diputatuen Batzordeak Bergarako arau subsidiarioak onartu zituen asteartean. Bergarako ezaugarri urbanistiko, ekonomiko eta sozialak kontutan hartu eta herriko planeamendu orokorra jasotzen da arau subsidiarioetan. Arauetan aurri-kusten denez, Bergaran gehienez 16.000 biztanle izango dira eta horretarako 70,7 hektarea kalifikatu dira. Bertan blokeetan joango diren 637 etxebizitza eta beste 20 etxebizitza unifamiliar egiteko asmoa dago. Masterreka eta San Antonio artean 400 bat etxebizitza egingo dira hurrengo urteetan. Industrialdea, berriz, Zerrajerako pabiloi zaharretan eta San Juan auzoan kokatuko da.

Era berean, arau subsidiarioetan, Eibar-Gasteiz autopista eta Beasain

eta Durangoren arteko bariantea eta oraindik egiteko dagoen Abiadura Haundiko Trenaren ibilbidea aipatzen dira. Bestalde, San Prudentzio-Arrasate edo Bergara-Elgeta (Angiozarretik) errepideetan hobekuntzak egiteko aukera ere jasotzen da.

Jorge Letamendia diputatuak Me-kolaldeko ur residualen depuradora egiteko zoru erreserba egin izana azpimarratu zuen. Eta nobedade bezala, kanposantu berri baten eta zentro kultural baten proiektuak ere aipatzen dira onartu berri diren arauetan.

Hiru hilabeteko epean Gipuzkoako Diputazioak onartutako testua onartu beharko du Udalbatzak Oso-ko Bilkuran. Gogoratu arau subsidiarioak 1983. urtean hasi zirela lan-tzen.

# SIRIMIRI

## jatetxea

PINTXO BEROAK,  
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

Angiozar, 37

☎ 76 27 82



Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu.



zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiatu koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko

kamiseten letra, zenbakia edo dibujoak jarzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39



## Jubilatueta boluntario talde bat osatzeko proiektua martxan

### Egoitzakoei eta gaisoei laguntza emateko

Bergarako Jubilatuen Egoitzan boluntario talde bat martxan jartzeko asmoa dago. Jubilatuen Egoitzak Alaitz Jauregi eta Rosa Benitez Gizarte Laguntzaile ikasleekin batera landutako proiektuaren arabera, boluntario talde horrek zailtasunak dituzten pertsonen lagunduko lieke. Maria Jose Agirregabiria Jubilatuetako Gizarte Laguntzailearen hitzetan, *"beren denboraren zati bat besteei laguntzen emateko prest egongo litzatekeen boluntario talde bat osatu nahi da. Talde honen zeregina, besteak beste, Erresidentzian dagoen jendeari eta gaisotasunen bat dutenei konpainia egitea izango da, hau da, beraiekin berba egin, pasiatzera irten eta*

*borrelako lanak. Ez dute beste erantzunkizunik izango".*

Datozen egunotan azterketa bat egingo da zerbitzu hori jasoko lukeen jendearen kopurua eta boluntario lanak egiteko prest zenbat lagun dauden jakiteko. Mari Jose Agirregabiria adierazi digunez Jubilatuetan talde txiki batekin lanean hasteko asmoa daukate; *"talde txiki bat martxan jartzea izan daiteke hasteko modu"*. Maiztaz aldean boluntario taldea martxan jarriko dela espero da.

Gai honekin lotuta, Juan Garitano Donostiako Nagusilan boluntario taldeko partaideak hitzaldia emango du asteartean arratsaldeko 6etan Jubilatuen Egoitzan.



Boluntarioen lana, besteak beste, Mizpirualde Erresidentziakoei laguntzea izango da.

## Eskola kirola larunbatean

Deba Garaia mailako proiektu pilotoarene barnean, bihar larunbata, hilak 20, Bergarako haurrek "kirol egokituak" praktikatzeko aukera izango dute goizeko 10etatik aurrera Mariaren Lagundian. Haurrek saskibaloia erroberadun aulkietan, boleia eserita edo boccia egin ahal izango dituzte.

## Chiapas aztergai

Komite Internazionalistak antolatuta, Rodolfo Izal apaiz nafarrak Chiapasi buruzko hitzaldia emango du ostegunean, hilak 25, 19:30etan UNEDen.

## Arans-Giren urteurrena

Arans-Gi Gorren Eskolaren XXV. urteurrenaren barnean, asteazkenean, apirilak 24, Mariaren Lagundia, San Martin de Agirre ikastetxea, Aranzadi Ikastola eta Antzuolako herri eskolan gorren gaiei buruzko muralak jarriko dira. Ostiral arratsaldean, berriz, 5. eta 6. mailako ikasleek prestatutako jaialdia izango da Mariaren Lagundiko aretoan.

## Abeslarien audizioa igandean Zabalotegin

Musika Eskolako abeslariak ikastaro bat emango dute astebukaera honetan Isabel Alvarez sopranoaren eskutik. Isabel Alvarez Capilla Peñafloridarekin edo Jordi Savallekin abestu du. Ikastaroari amaiera emateko, audizio bat izango da igandean arratsaldeko 6 t'erdietan Zabalotegiko aretoan.

**ARREGI**

**Eraikuntza materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraian.  
Tfnoa: 76 27 93

**iRUDI**

**Erlojudenda Bitxitegia**

Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65

**AGOITZ**

**Tapizdenda**

San Lorentzo, 25 BERGARA  
Tfnoa: 76 18 23



# Imanol Bolinaga

## EAJko senatorea

**Imanol Bolinaga, 63 urte, Bergarako alkate eta Turismo sailburuorde izandakoa, EAJko senatore eta Europako Kontseiluko Batzarreko kide da, Estatu Espainoleko kongresu eta senatua ordezkatzuz. Bere lanari eta gaur egun pil-pilean dauden hainbat gairi buruz berba egin dugu berarekin.**

- Orain dela gutxi notizia izan zara Kurdistanen izandako arazo batzuk direla eta.

- Bai, Europako Kontseilua ordezkatzuz, kurdoek bizi duten egoera gertutik ezagutzeko aukera izan nuen. Zortzi egunez izan ginen eta Turkiako polizia eta militarrez inguratuta izan ginen denbora guztian. Estuatsun batzuk ere pasa genituen. Han ikusitakoekin oso tristetuta bueltatu nintzen. Arazo latza dute kurdoek, bost estatutan banatuta dagoen herrialdea baita. Zatik haundiena Turkian dute eta Turkian giza eskubideak ez dira errespetatzen


- Eta zer egin dezakete Europako estatuek

kurdoei laguntzeko?

- Gauza gutxi. Turkia OTANen sartuta dago eta toki estrategiko garrantzitsua da. Ia 3.000 herri kurdo txiki ezerezean geratu dira, gune militarizatu bihurtu dutelako turkoek. Herri txikietako bizilagunek hiri haundietara jo dute eta hiri horietan egoera negargarria bizi dira.

- Legealdi berriari begira, zeintzuk dira EAJrentzat landu beharreko gai nagusiak?

- 6 senatore gara eta talde propioa osatu dugu. Hori oso garrantzitsua da gure ahotsa ozenago entzungo delako. Soldaduzkaren kontua oso inportantea da. PP soldaduzka desagertarazteko eta ejerzito profesionala osatzeko prest azaldu da orain, baina soldaduzkaren azken legea egin zenean, 1991.ean, ez zuen jarrera hori azaldu. Guk orduan ere argi esan genuen, azken batean ejerzitoaren beharrik bazegoen, profesionala izan beharko zela. Orduan sekulakoak entzun behar izan genituen. Bestalde, gure estatutuaren alde lan egingo dugu, Europa mailan gure aho-



"Senatuan nagoenetik abertzaleago sentitzen naiz".

tza gero eta gehiago entzun dadin ere borrokatu gara. Gero, senatuan egiten diren legeekin argi ibiliko gara, gure estatutuaren kontrakoak izan ez daitezten. Senatuan nagoenetik abertzaleago sentitzen naiz.

- Aurrerantzean senatuan hizkuntza minorizatuak toki garrantzitsuagoa izango dutela komentatu izan da.

- Bai zera! Testimonio hutsa besterik ez da. Han ez daude horretarako. "Kaixo" eta "agur" bakarrik esateak ez du zentzurik. Gainera, senatura noanean nik nahi dudana da nire hitzak argi eta garbi jasotzea eta erdaraz egin behar bada egin eta kitto.

- Senatuaren balioa zalantzan jarri izan da behin baino gehiagotan. Zer deritzozu?

- Hemen planteatu behar dena da estatutua be-

te egin behar dela eta ondoren senatua zer izan daitekeen, edo beharrezkoa den, edo Estatuak senatu barik funtziona dezakeen ala ez. Gure helburua Euskal Herriaren burujabetasuna da.

- Orain dela pare bat urte senatuaren aurrean intsumiso aldarrikatu zenuen zeure burua. Zer deritzozu Bergarako Udaltzatzen joan zen astean hartutako erabakiari, hau da, Bergarako Udala intsumiso egiteari?

- Neure burua intsumiso aldarrikatzen dut eta intsumisoak miresten ditut, euren ideiatatik kartzelara joateko prest dardelako eta lagundu egin behar zaie intsumisoei, ez direlako delinkuenteak. Baina Udala herri guztiarena da, baita soldaduzkara joan nahi dutenena ere eta guztiei lagundu behar die, bai intsumisoei eta baita intsumiso ez direnei. Ejerzitoarekin ez kolaboratzea ez dut uste arazoizko jokabidea denik. Gai hauek parlamentuan eztabaidatu behar dira.

**"Intsumisoen alde nago baina Udala herri guztiarena da, baita soldaduzkara joan nahi dutenena ere"**



## Legedia

# Pisua erosi eta berrizteko laguntzak

- **Suradesak pisuak erosi eta berrizteko dirulaguntzak jestionatzen ditu...**

- Deba Garaiko Mankomunitateko udalek sortutako elkarteak da Suradesa, eta Mankomunitateko herrietako alde zaharrak berriztu eta berrizteko asmoz sortu zen. Dena den, hasieran alde zaharretan bakarrik lan egin zen, baina orain zabaldu egin da Suradesaren lan esparrua. Doaneko zerbitzua ematen dugu eta Bergaran asteazkenero izaten gara, goizez, 9etatik ordubatera Udaltxeko Bulego Teknikoan.


- **Pisuak erosteko ze laguntza daude?**

- Gutxiengo soldata baino gutxiago kobratzen dutenek ere dirulaguntzak jasotzeko aukera daukate. Gutxiengo soldata, gogoratu, 847.980 pezetakoa dela gaur egun. Aurreko baldintza kontutan izanik, etxebizitzaren erosteko kreditua, sarriaren arabera, %4,75ean, %6an, %7,5ean edo %8,75ean jasotzeko auke-

ra dago. Gure bitartez tramitatzen dira dirulaguntzak, baina Eusko Jaurlaritza da laguntza horiek ematen dituena. Azken batean Jaurlaritzak kreditua eman behar duen bankuari ordaintzen dio.

- **Edozein pisu erosteko laguntzak dira?**

- Bai, pisu berriak ala 2. eskuko etxeak izan



**MIREN ARGÍ ZEZIAGA**  
(Suradesako langilea)

daitezke baina etxebizitzaren gehieneko prezioak finkatuta daude. Etxebizitzaren gehieneko m<sup>2</sup> erabilgarriak 90 m<sup>2</sup> izan behar dira (120 m<sup>2</sup> familia ugarien kasuan). Horrela, 75 m<sup>2</sup> erabilgarri dituzten etxebizitzetan m<sup>2</sup> bakoitzak, gehienez,

## "Dirulaguntza jasotzekotan, erositako etxebizitzak babes ofizialekoak izango dira"



Suradesak etxeak erosi eta berrizteko dirulaguntzak tramitatzen ditu.

123.000 pezeta balioko du eta 75 m<sup>2</sup>tik 90 m<sup>2</sup>ra bitarteko etxebizitzetan 112.000 pezeta. Adibidez, 70 m<sup>2</sup>ko etxebizitza batek, asko jota, 8.600.000 pezeta balioko du. Baldintza horiek ikusita argi dago etxe berriek ez dituztela betetzen. Dirulaguntza jasotzekotan, etxe horiek babes ofizialekoak izendatuko dira.

- **Horrek zer suposatzen du?**

- Bost urtetan ezin izango da erositako etxea saldu, eta salduz gero jasotako dirulaguntza guztiak itzuli beharko dira diru horrek sortutako interesekin batera. Sei urtetik aurrera etxea saldu ahal izango da baina Jaurlaritzak ezarritako prezioa baino merkeago.

- **Pisua erosi eta berrizteko laguntzak berdinak dira?**

- Interes tipoa berdina da pisua erosi eta eraberritzeko kasuan. Baina erosteko kreditu hipotekarioa 20 urtetara finkatzen da; eraberritzeko kreditua, berriz, 5 urtetara kreditu pertsonala denean eta 13 urtetara kreditu hipotekarioa denean. Eraberritzeko dirulaguntzak daukan abantaila da: obraren kopuruaren %15a haziandan desgrabatzeko aukera dagoela, baina beti ere dirulaguntza berrikuntzekin hasi baino lehen eskatu behar da.

# SUBIJAi

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

## ileapaindegia

eder gela

# disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55


# GURIDI

altzariak

## Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02





Edozein bide bazterretan edo lursailtan daude ortuak.

# Ortuak nonahi

## Sasiaren partez ortuak

**Labegaraieta inguruan konta ezin ahala ortu, Antxiturri ondoan 35 bat, Mekolalderako bidean beste 50en bat... edozein bide bazterretan daude ortuak. Batzuek denborapasarako, beste batzuek etxerako zerbait ateratzeko, lurra dagoen edozein lur muturretan landatutako sailak ikus ditzakegu.**

**O**rain arte sekula ez bazara jabetu, ko-txez zoazela nahiz paseoan zabiltzala, begiratu inguruetara. Harrituta geratuko zara zenbat

ortu dagoen!

Mekolalderako bidean jendea paseoan ez ezik, inguruan dauden lur sailetan jendea ortuetan lanean ere ibiltzen da. 50

ortu baino gehiago daude. Gehienek landatutako sailaren ondoan trasteak gordetzeko txabolak eginda dituzte. Batzuk lantegietako lurretan daude, beste batzuk baserrietako lurak dira.

### Betiko zaletasuna

Jose Luis Arevalillok eta Maximo Dominguezek 20 urte baino gehiago daramatzate ortuan lanean. Murinondo auzoko Etxebarrieta baserrien ondoan bi lursail dituzte, guztira 1.000 m<sup>2</sup> edo. Ma-

ximok berarentzako lurzati gehiegi zuela eta laguna duen Jose Luisi esan zion ea berak ere lan egin nahi zuen. Honek baietz erantzun eta duela 20 urte baino gehiago hasi zen Maximorekin batera lurrean atxurra sartzen. "Lantetik ateratzen ginenean egunero etortzen ginen ortura. Jubilatutako ginenean ez diogu laga etortzeri. Tabernetan txikiteoan edo plazan gora begira baino hobeto pasatzen dugulako etortzen gara".

Pozik handiena ortu ederra ikusteak ematen



## "Ez da dena lan egitea; haizea hartu, ondokoekin berba egin, meriendatu... Aparteko denborapasa da"

die. "Norberak landatu, erregatu, ikusi nola atera den; prozesu osoa bizi-tzea oso polita da. Gainera, etxeko tomateak, letxugak... ezin dira den-dakoekin konparatu".

Ez dute lur zati bana, bi dituzte eta biak ibiltzen dira bietan. "Ortua batek bakarrik edukitzea lotua da, bion artean hobeto moldatzen gara. Bat etorri ezean bestea etortzen da, eta ez da ezer galtzen". Opor sasoiaren ere ez dute arazorik izaten. Jose Luis Nafarroara joaten da, eta astean behin behintzat etortzen da buelta bat egitera. "Urte guztian lanean ibili eta gero oporretan dena galtzea lastima izaten da".

### Ortuan denetarik

Jose Luisek eta Maximok barazkiez gain fruta ere badute: mallukiak, keixak, okanak, sandia, meloiak, melokotoiak, kiwiak, pikuak... "Gurean ez da konjelaturik jaten, ez dugu ezer erosten; urte guztirako ateratzen dugu".

Oiloak ere badituzte. "20 oilo ditugu, aske ibiltzen dira eta egunean 18 bat arraultza batzen ditugu". Lehen konejoak ere bazituzten, baina lan handia ematen zitelako kendu egin zituzten. Inguruan arratoi ugari dabilenez, katuak ere badituzte. "Katu bat azaldu

zen, hemen geratu zen eta barrezkero ez dugu arazorik izan arratoiekin. Lehen burutu ezinda ibiltzen ginen, konejokumeak bil egiten zizkiguten, erropetan apiak egiten zituzten... katuak ditugunetik arratoiekin ez dugu inolako arazorik izan".

### Denborapasa

Roke Zubizarreta ortuan betitik ibili da, "baserrikoa naiz, eta jaiotz gero-roko guztian ibili naiz

ortuan". Antxiturri ondoran du orain. "Lurra ez da gurea, bebeko lantegiarena da; ingurua garbi edukitze aldera laga zituguten ortuak jartzen, sasiak jantzi ez zezan. Hartara, lantegi inguruak beste itxura bat du". Maximo eta Jose Luisena baino askoz txikiagoa izan arren, "guretzako nahikoa da, etxerako lain ateratzen dugu eta. Lehen garia, arbia... denetarik genuen baserrian, orain, hemen, kipu-la, baba beltza, beraka-

tza, tomatea, piperra... Gebiago ez dut behar, nahikoa lan egindakoa naiz".

Egunean bi aldiz joaten da, goiz eta arratsalde. "Denbora eramatera etortzen naiz. Goizean leka sartzeko lurra atxurtu dut, aurki baba beltza aterako dut; gero tomatea sartuko dut. Porrro eta piper landarei ere bota diet ura. Etxera joan aurretik bazitokia tapatuko dut izotza egiten badu ere. Gaur egin beharrekoa egin dut".



Ortuan batez ere jubilatua eta gizonezkoak ibiltzen dira.

**EGUREN**

**GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behe

☎ 76 21 65 / 76 24 45

**Gallastegi**

**Jostundegia**

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

**Kabia** TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.

Karta (2.000-3.500 pza. artean).

Okela eta arraina parrilan (enkarguz).  
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadiloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08



Ortuan 6 ordu pasa arren, denbora guztian ez du lanean jarduten. "Zigarro purua erre, lagunekin berbetan egon, hemen egiten duen giroarekin eta egoten den lasaitasunarekin denbora igarri ere egiteke joaten da".

**Jubilatuak eta gizonezkoak**

Ortuetan dabilzan gehienak gizonezkoak eta jubilatuak dira, gazteak oso gutxi. Labegaraieta ostean gizon askoren artean emakume bat dabil erregadioan, Josefa Perez da. "Ez naiz emakume bakarra, badira beste batzuk ere. Goizean etxeko lanak egiten ditut eta arratsaldeetan etortzen naiz". Letxugaz, kipulaz, piperrez, tomatez, berakatzek... beteta du 200 m<sup>2</sup>ko saila. Aste Santuan galiziar batek piper txorizeroak ekarri dizkio ma-



Ortuko barazkiak jateko prest, lan egin duenaren inguruko guztiak egoten dira.

min gehiago dutelako, eta horiekin hasteko asmoa du orain. Zenbaitek ortuan ibiltzea dirua aurreratzeko modua dela uste badu ere, Josefak dioenez

ez da hala. "Guk ortuan landareak, baziak... elkarri ematen dizkiogu, baina gebienetan erosi egiten ditugu, eta ondo kostata gainera! Botikak

ere ordaindu egin behar dira; ortuan zerbait jaso nahi izanez gero, gastatu egin behar da".

**Erremedio naturalak**

Ortuetan arratoiez gain, izotza eta gorrina dute etsai. Eguraldia aldatzeko ezin dute ezer egin, gorrinaren kontra, ostera, botikak erabiltzen dituzte. Jose Luisek eta Maximok ez dute kimikagairik erabiltzen. "Produktu kimikoak garestiak izateaz gain, osasunerako kaltegarriak dira. Guk liburu batean oinarrituta egiten ditugun nabasketa naturalak erabiltzen ditugu gorrina, txindurri eta bestelako gaitzen kontra.

**Ortuan ortutsik**

Jose Luis Arevalillok txikitoak edatea baino nahiago du lur artean oinak sartuta ibiltzea. Orain dela 20 urte ingurutik etortzen da kale egin barik. "Lanean nenbilenean, nire orduak sartu ostean etortzen nintzen. Jantzi erropa zaharren batzuk, gastatutako oinetakoak eta oinak lur artean sartuta arazo guztiak ahazten nituen. Hobby polita

da. Haizea hartu, oxigenatu; primeran sentitu eragiten nau. Nork gobernatzen duen ere ahaztu egiten zaizu". Jose Luisen esanetan lurrarekin kontaktoan daude. Bere ortukide den Maximo Dominguez sarritan ortutsik ere ibili izan da. "Ikaragarri gus-tatzen zait oinutsik ibiltzea; lurra ikutzea eta sentitzea tentsio guztia kanporatzeko modurik onena da. Ez dago horrelako tera-piarik!".

**REMENTERIA**  
**Altzariak**  
 Egongelak / Logelak  
 Aukera guztiak / Enkarguan  
 Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29



**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**  
 Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 **BERGARA**



*Nabasketa horiek gure sekretu profesionala dira, urteetan zehar ikasitako erremedioak". Erremedio horiei esker, emaitza ezin hobeak izan dituzte. "Saso batean konejoen izurrite bat zela eta, inguruko guztiei konejoak hil zitzaizkien, guri bat ere ez".*

### Erregadioa

Barazkiei ura botatzeko, txabolen teilatuetan euria egindakoan batzen den ura aprobetxatzen dute. Teilatutik bidoi batera gomazko tubo bat bideratzen dute eta ura dagoenean bidoirra joaten da. Bidoiari, betetakoa, beste tubo bat jartzen diote eta beste bidoi bat betetzen dute, bidoi honetatik beste bat... bakoitzak behar adina ur lortu arte. Batzuk errekatik ere har-

tzen dute ura, baina Jose Luisek dio eurek sekula ez dutela errekatu urik hartzen, *"kutsatuta dago eta ezin da erabili"*. Ortuan lanean jarduteak atxurrean egiteaz gain, beste lan ugari eskatzen du: belarra moztu, plastikoa ipini, makilak egin, erregatu... Josefaren esanetan, lanik haundiena erregadioak ematen dio, *"denborarik gehien horretan pasatzen dut"*.

Iaz patata urtea izan zen, aurten ez dakite zer aterako den ona, oraindik goiztxo da eta. Eguraldi ona besterik ez dute eskatzen oraingo.

## "Egiten ditugun nahasketak gure sekretu profesionala dira, urteetan zehar ikasitako erremedioak"



Lantegi askok inguruko lurak orturako lagatzen dituzte, sasiak jan ez dezan.

**Haurdun bazaude  
LAURA da zure  
jantzidenda.**

**Udaberriko moda  
gaztea jazteko neurria  
ez da izango arazoa.**

**Tailaje zabalena dugu.**


**Laura**



**Erdiko kale, 30  
Tfnoa: 79 05 80  
ARRASATE**



## Zer deritzozu Udalak intsumisoei laguntzeko Plenoan hartutako erabakiari?



**Iñaki Andueza**  
48 urte, langilea

Ondo, alternatiba horrek onartzean demokrazia indartu egiten dela pentsatzen dudalako.



**Juan Carlos Sarasketa**  
44 urte, langilea

Ados nago, nire ustez ez delako inor behartu behar soldaduzka egitera, profesionala izan behar da. Horregatik Udalak intsumisoei laguntzea ondo ikusten dut.



**Felisa Kortazar**  
66 urte, etxekoandrea

Norberak erabaki behar du soldaduzka egin ala ez, horregatik ondo ikusten dut Udalaren erabakia. Inor ez da inora behartuta joan behar.



**Miren Kortazar**  
64 urte, etxekoandrea

Soldaduzka egitera behartzea ez dago ondo eta, beraz, ados nago Udalak hartutako erabakiarekin. Gaur egungo gazteek ez dute soldaduzka egiterik nahi.



**Nikolas Gallastegi**  
46 urte, langilea

Ondo, bakoitzak bere erabakia askatasunez hartu beharko duelako. Soldaduzka libre izan behar zen, eta ondo ikusten dut intsumisoei laguntza ematea.




**Ana Ot**  
25 urte, langilea

Ados nago Udalak hartutako akordioarekin intsumisoei honelako laguntza behar dutelako.



Bizkaia Etorbidea, 1  
etxabea



Tfnoa: 77 14 24


**TABERNA  
ZAHARRA**

*Jatetxea*

bazkari eta  
afariak

Tfnoa: 76 21 21  
**ANGIOZAR**





## Basoetako mugak

Uztailaren 8ko 6/1994 Foru Arauak Gipuzkoako Mendi-  
etako baso eta finka mugakideen arteko tartea konkretatzen ditu.

Baserritarrentzat neurri hauek ezagutzea beharrezkoa bada, beste edozeinentzat, berriz, basoak dituelako edo eta kultura maila orokor bat lantzeko asmoz interesgarriak izan daitezkeelako ataltxo honetan zuenganatzea komenigarria dela iruditu zait.

Foru arauak bere 96. artikuluan zera dio: berbasotze lanak egiten direnean, zuhaitzien eta finka mugakideen artean utzi beharreko tarteen arauak hartu beharko dira kontutan. Hala, bi aldeek ados jarrita bestelakorik erabaki ezean eta inguru horretan ohiturazko ordenantzak edo usadioak ez badaude, zuhaitzak ondoko finken mugatik gutxienez ondorengo tartea utzita aldatu beharko dira: Basoen artean, 2 metro. Muga baratza, larre edo fruitarboladiekinean, berriz, 6 metro eukaliptus motako zuhaitzak aldatzen badira; 4 metro, gainerako espezie hostozabaletakoak direnean eta 3 metro, koniferak edo erretxinadunak direnean. Azkenik, muga baserri, landa, etxe edo nekazal eraikinekin denean, 30 metro.

Neurri hauek praktikan finkatzerakoan zenbait alderdi ez dira aintzakotzat hartzen. Leku aldapatsua den ala ez, eguzki begitan kokaturik dagoen, gerizpean... eta abar. Beraz, aipatutako araua garrantzitsutzat jo arren tirabirak sortzen dira eta arrerantzean ere hala izango dela uste dut.

Badakigu arau batek berezitasun guztiei ez duela erantzunik ematerik baina borobilagoa izan beharko luke.

**Amaia ZABALETA**



## Gu eta besteak

Grenobleko Musée Dauphinois-en ezberdintasunari buruzko azalpenetan ikusi dugu "gurea" deritzatela frantsesek "euren" herrialdea osatzen duten bretoiera, okzitaniarra, flamera, euskara, gaskoinera eta abarri. Eta "euren" herrialdearen batasuna eta aniztasuna erakutsi nahi dute munduko beste kulturen aurrean.

Beste hainbeste egiten dute espainolek eskolako testu liburuetan ikusten denez: Espainiar nazioaren parte omen gara euskal herriarrok, gailego, katalan, gaztelar, kanariar eta abarrekin batera.

Bi lekukotasun hauen arabera, guri dagokigunez, ez du esistitzen Euskal Herriak, Espainiako edo Frantziako estatuaren zati bezala ez bada. Beste hainbeste esan daiteke katalanei eta beste batzuei buruz ere.

Ipar eta Hego aldeko euskaldunok ez ote dugu bada herri bezala bereizten gaituen oinarriko nortasun bat? Ez al dira lokarri hauek Ipar aldekoak flamanekin eta Hego aldekoak katalanekin ditugunak baino sendoagoak?

Euskaldunok bizirautea nahi badugu, argi jarri beharko dugu zer izan nahi dugun eta batez ere zer izan nahi ez dugun, inguruko estatu erraldoiek gure nortasuna irentsi aurretik. Kanpotik ezartzen dizkiguten mugak gainditu beharra dugu, "gu" izan nahi badugu.

**Rufina OLASAGASTI**

## EDEL TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik  
haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak,  
kortinoiak, koltzak,  
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**

## Cristina Garciandia Mujika

**DERMATOLOGIA**

**BENEREOLOGIA**

**MEDIKUNTZA KIRURJIKOA**

San Martin Osasundegia  
Ramón María Lili, 2 (Ate nagusia)  
Telefonoa: 76 59 39



■ **Dantza eta afaria**

Asteartean amaiera eman zitzaion Jardunek antolatutako dantza ikastaroari. Azaroaren 28tik, asteartero, 40 bat lagun aritu dira fandangoa eta arin-arina ikasten. Irakasleak **Amaia Agirre** eta **Edu**

**Muruamendiaraz** Euskadiko txapeldunak izanik, ikasle fin hauekin dantzak oraindik etorkizun oparoa duela esan genezake... Ikastaroan parte hartu duten ikasleek afaria egingo dute ostiralean, apirilak 26, Zuhaizti tabernan. Izen-ematea Zuhaiztin (76 59 22 telefonoa) bertan egin daiteke.



Jardunek antolatutako dantza ikastaroan 40 bat lagun aritu dira astero fandangoa eta arin-arina ikasten.

■ **Mendi Asteari agur**

Gaur ostirala, 19:30etan, argazki rallyaren sari banaketa eta proiektzioa egingo da Pol-Poleko aretoan. Igandean 10 argazkilarik hartu zuten parte rallyan eta irabazleak gaur bertan ezagutuko dira. Bestalde, diapositiba emanaldi interesgarriak ikusi ahal izan dira aurtengo Mendi Zikloan. Andeak, Picos de Europa edota Argeliako txoko ikusgarriak ezagutzeko aukera izan da mendizale ezagunen eskutik eta jende dexente izan da UNEDeko proiektzioetan. Era berean, Jose Ramon Agirre "Marron"ek herriko ikasleei "Lurra" izenburuko emanaldia eskeini die. Bihar, larunbata, berriz, mendi garbiketa egingo da Pol-Pol iturriaren inguruan. Irteera goizeko 10etan egingo da Frontoitik. Arratsaldean, J.R. Aihartza EHuko irakasleak saguzaharren inguruko hitzaldia emango du 19:30etan Pol-Poleko aretoan.



**LARRAÑAGA**  
**eta ZUBIA**  
**Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

**ZUBIAURRE**  
**aroztegia**

Sarrerako eta barrurako ateak, horma  
armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko  
leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

*Kizkur*

**ILEAPAINDEGIA**  
**SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32




■ **Arrese etxearen itxura berria**

Arrese Etxea erabat dotoretuta dugu, bertan egiten ari diren berritze lanak direla eta. Jatorrizko arkuetatik bakarra utzi eta gainontzeko hiruretan dintelak jarri dizkiote. Horrez gain, bi fatxada garbitu eta beste hainbat hobekuntza egin dira **XVI. mendeko eraikuntzan**. Orain harmarria eta balkoia berrizteko lanak egitea besterik ez da falta. Harmarria berpizkunde garaiko balkoiaren azpian dago eta lan hori aditu batek egingo du. Berrizte lanek 9 milioi pezetako aurrekontua izan dute. Lanak hemendik hilabetera amaitzea espero da. Arreseko etxabearen, "La Caixa"ko bulegoa jarriko da.



etxabearen, "La Caixa"ko bulegoa jarriko da.

**Zertan dihardute ba?**



**Juan Jose Altuna**

53 urteko margolariaren erakusketa ikusi ahal izango da Bilboko Berta Belaza galerian (Plaza Arrikibar, 5) maiatzaren 4ra arte. Arrasatearra jaiotzez, orain dela 25 urtetik Bergaran bizi da eta bere ibilbide artistiko gehiena Bergaran egin duela esan daiteke. Altunak collage edo teknika mistoez egindako 25 koadro erakusten ditu Bilbokon. Ez da Juan Jose Altunak Berta Belaza galerian erakusketa bat egiten duen lehen aldia eta badirudi oraingoan ere bere koadroek pintura zaletuen oniritzia jaso dutela. Altunak papera, ohiala edo egurra erabiltzen ditu bere koadroak egiteko. Minimalaren ildotik jo du azken aldian.

■ **Gaztetxoentzako iharduerak**

Gabonetan egin zuen moduan, **Jardunek** gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak antolatu zituen aurreko astean, Aste Santuko oporretan. Helburua astialdia lagunartean eta euskaraz igarotzea zen eta Kartzela Zaharrean bildutako gaztetxoek primeran pasa

zuten elkarrekin jolasten. 11 urtetik 14 urtera bitarteko 35 bat gaztetxo izan ziren arratsaldero Kartzelan egindako ekitaldietan. Jardunek larunbatero, 16.30etatik 20.00etara Kartzela irekitzeko asmoa dauka eta beraz gonbidapena luzatu nahi die herriko gaztetxo guztiei. Ea ba animatzen zareten...



**LARREA**

**TABERNA**

Kale Barren, 17  
ANTZUOLA

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



Erakusketa: Mastorreka 14, behea BERGARA  
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**BERGARA**  
**Karrozeriak**

**Txapa - Pintura**

**Zubieta, 46 BERGARA**


☎ 76 12 31



# Carlos Telleria

**Korrikalari fina dugu Carlos Telleria (34 urte). Egunero entrenatzen da eta bere hitzetan forman egoteko sekretu bakarra bere burua asko zaintzea da. Carlosek Gureako tailerretan egiten du lan eta lagun ugari ditu Agorrosinen ibiltzen diren korrikalarien artean.**

- Zenbat kilometro eguncan?
- Domeketan 15 Km. eta beste egunetan 12 bat buelta pistan.
- Pistan ala hortik zehar nahiago?
- Hobe kanpora irtetzea.
- Distantzia luzeak ala motzak?
- Luzeak. Kilometro pila egiten dut, ez naiz kantsatzen.
- Korrikan goizez ala arratsaldez?
- Arratsaldez.
- Eguzkia ala euria?
- Euriarekin korrika egitea gustatzen zait.
- Gustoko karrera bat?
- Behobia-Donostia, 13 aldiz korritu dut. Ordu t'erdian egin daukat.
- Hurrengo karrera zein?
- Arrasate-Oñati eta Azpeitia-Azkoitia egiteko asmoa daukat. Ea Arroyo entrenatzaileak zer esaten duen...



*"Lagun asko daukat Agorrosingo korrikalarien artean eta kilometro pila egiten dut korrikan. Behobia-Donostia proba 13 aldiz egin dut eta maratoi batean ere izan naiz, baina gogorregia da maratokia"*

- Maratoirik egin duzu?
- Bai, Donostiakoa, 85ean. Baina gogorregia da.
- Lesiorik izan duzu?
- Ez.
- Martin Fiz ala Diego Garcia?
- Biak oso onak dira.
- Pisua asko zaintzen duzu?
- Zaintzen dut bai, baina denetik jaten dut.
- Janari bat?
- Arroza eta makarroiak.
- Juergarik egiten duzu?
- Ez.
- Klean zapatilak ala zapatak?
- Zapatilak.
- Kirol marka bat?
- Adidas, Reebok...
- Beste kirolik egiten duzu?
- Bai, igeriketa. Egunero etortzen naiz igerilekuetara.
- Eta zeintzuk jarraitzen dituzte?
- Ia denak. Eskubaloia, txirrindularitza... Olano eta Indurainen jarraitzailea naiz.
- Atsegin zaizun filme bat?
- Rocky.
- Telebistako programa bat?
- Toma y daca.
- Irratia entzuten duzu?
- Bai, Jose Maria Garciaren programa gustatzen zait.
- Futbol talde bat?
- Barcelona.
- Barçako jokalaria bat?
- Ivan De la Peña.
- Pronostiko bat larunbaterako?
- Ez dakit, 3 eta 0 irabaztea komeni liga irabazteko...

## ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

# AZPEITXI

Aranerrika, 13 behea ☎ 76 55 00

## Jatetxea

## LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

## A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai. 80 m2 eta 6 m2ko terraza. ☎ 76 03 75.

**Etxea** alokatzen da Alcoceberren, Castellonen. Amueblatuta. ☎ 76 59 05.

**Pisua** salgai Barrenkalen. Berriztuta. ☎ 78 70 30.

**Pisua** salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 43 22/76 56 07.

**Pisua** salgai San Antonion. Amueblatuta. ☎ 76 05 99.

**Etxea** salgai Katabian. Amueblatuta. ☎ 76 44 55.

**Pisua** salgai Maduran. ☎ 76 45 03.

**Garajea** salgai Ibargarain. 22 m2. ☎ 76 44 25.

**Lokala** alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 91.

**Garajea** (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

**Pisua** salgai herri erdian. ☎ 76 39 64 (21.00-23.00).

**Pisua** salgai Antzuolan. ☎ 76 25 32.

**Pisua** alokatzen da Zubietan. ☎ 76 47 28 (gauetz).

**Pisua** alokatzen da Zubietan. ☎ 76 47 28 (gauetz).

**Garajea** alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 29 33.

**DENETARIK**

**Kanpin denda** familiarra salgai. ☎ 76 37 96.

**Kawasaki** GPZ 500 motortorra salgai. ☎ 76 33 46.

**Nikon** 70210 "D" objetiboa salgai. B + W filtroa, parasol originala. Erabili gabe. ☎ 76 52 31 (Jesus, gauetz).

**Hi-Fi** kate txiki bateko bi bafle salgai. ☎ 76 52 31.

**Suzuki** GSx 600F motortorra salgai. ☎ 76 20 26 (gauetz).

**Golf** 1600 kotxea (2. seriekoa) salgai. SS-V matrikula. ☎ 989 58 40 24.

**Erlojua** (Casio kalkuladoraduna) galdu nuen aurreko astean Boni Laskurain kalean. ☎ 76 38 71.

**Renault 4** F6 kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

**Ford Sierra** kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

**Boxer** txakurkumak salgai. ☎ 76 28 68 (21.00-23.00).

**Ordenadore** bat salgai. ☎ 76 27 59.

**Lancia** Delta GTI kotxea salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

**Montesa** H7 Enduro motortorra (250 cm3) salgai. 100.000 pta. ☎ 76 31 40.

**Pekines** txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

**486 Compaq** ordenagailua salgai. ☎ 76 00 91.

2. eskuko **kotxe kapota** erosiko nuke. ☎ 76 46 54.

**Gimnasia** egiteko motorizatutako 6 mahai salgai. Egoera onean ☎ 76 13 46.

**LANA**

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Errenta** aitortpenak egiten ditut. ☎ 76 34 95 (Ander).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 04 65.

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 00.

**Neska** euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 15 12.

**Aleman** diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Neska** batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 96 (Merche).

**BBB**, UBI eta Unibertsitate mailako klase partikularrak. ☎ 76 35 37.

**Lan** egiteko emakume bat eskeintzen da. ☎ 76 38 83 (eguerdiz eta gauetz).

**Ordenadorez** lanak pasatzen dira. ☎ 76 27 59.

**Zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 11 11.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Larrañaga**

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - SS

**BERGARARA**

**Amets**

- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK  
Berezano auzoa OÑATI


Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

**ZABALETA  
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskapareak...







*"Hasieran kalean-eta ibili arren, orain deitzen diguten ezteietan bakarrik jotzen dugu"*

*"Gaztelera eta euskaraz abesten dugu normalean, baina ingelesez ere ausartu gara inoiz"*

**JOSE MARI ARRONDO, IBAIAK TALDEKO BATERIA**

## **"Abesti alaiak, jendea dantzara animatzen dutenak, jotzen ditugu"**

Ibaiak taldea 1981ean sortu zuten herriko bost lagunek. Oso famatuak egin dira ezteietan jotzeagatik eta giro aparta sortzeagatik. Euren burua ez dute profesionaltzat hartzen eta bandan ibilitakoak dira. Partaideak Jose Luis Pumar (saxoa), Alberto Laskurain (teklatura), Angel Agiriano (baxua), Julen Narbaiza (gitarra) eta Jose Mari Arrondo (bateria) dira. Azken honekin hitzegin dugu.



"Ezagutzera emateko ez dugu arazorik, aski ezagunak garelako".

AITZIBER AZKONDO ETA  
MARIA URZELAI

**- Nola hasi zineten elkarrekin jotzen?**

- Bandan ezagutu genuen elkar eta musika talde bat sortzea pentsatu genuen. Ibaiak sortu aurretik Los Blues taldean geunden bik eta beste hiru lagunek 1981. urtean talde berria osatu genuen.

**- Normalean non ibiltzen zarete?**

- Hasieran kalean jotzen arren, orain ezteietan baino ez gara aritzen. Gaur egun kalean jotzeko ez gaude ondo prestatuta, ekipo handia behar izaten da horretarako eta,

bestalde, jendeak ez du lehen bezala erantzuten. Gazte jendeak ez du musika mota hau gustoko, rock-a da nagusi.

**- Nondik nora doazuen erreperitorioa?**

- Mota guztietako musika baina gehienbat abesti alaiak, jendea animatzen duten horietakoak jotzen ditugu. Boleroak ere gure gustokoak dira. Dena den, ez daukagu abesti propiorik. Gaztelera eta euskaraz abesten dugu normalean baina ingelesez ere ausartu izan gara.

**- Bergaratik kanpo jo al duzue inoiz?**

- Bai, azken aldiz

**"Behin, ezkontza batean, taldekideak antzinako erara jantzita irten ziren eta ni, berriz, rap-er itxuraz; oso ondo pasa zuen jendeak"**

Arrasaten izan ginen eta Nafarroara eta Bizkaira ere joaten gara. Irati eta Gernika izan dira urrutiko egondako herriak. Gainera, ezagutzera emateko ez dugu inongo arazorik edukitzen, aski famatuak gara eta. Harremanetan jartzeko bidea gehienetan jantzeak izaten dira.

**- Zaila al da ezteietan jendea animatzea?**

- Hasieran bai. Gero oraindik hotza dagoenez, narrua eduki behar dugu dantzara irtetzeko eta bertan geu ateratzen gara jendea girotzeko.

**- Ba al daukazue jantzi berezirik?**

- Bai, txalekoarekin ateratzen gara. Behin Bergarako bikote batek ezkontzan, taldekideak antzinako erara jantzita irten eta ni berriz rap-er itxuraz...

**- Anekdotarik?**

- Behin neska ingelesez bat Bergarara etorri zela hilabete batzuk igarotzen eta guk jotzen genuen ezkontza batera etorri zen. Berak hemen ezkontzeko asmoa duenez, Ibaiak taldeak bere ezkontzan jotzeko aukera izan arte ez zela ezkontzara aipatu zuen.





## 1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	40	16	77	28
2. BAR CANALEJAS	37	16	55	20
3. MONGATXURRAK	34	16	73	29
4. MADURA INDUSTRIAS GOL	29	16	49	36
5. OGIZUN	26	16	52	52
6. KABIA	22	15	34	39
7. ARLOTEAK	18	15	26	37
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	16	16	38	48
9. ORTZI	16	15	25	43
10. UFALA	7	17	39	82
11. OZAETA	4	16	36	79
12. BERGATRANS	0	0	0	0

## 2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	44	17	112	51
2. A ZE FLAXA	41	18	77	45
3. ARTUSAMAK	31	18	58	42
4. PAGOMENDI	31	17	73	53
5. UVE BIKOITZA	25	17	45	60
6. NAIKARI HOOLIGANS	22	16	57	57
7. KAYAK OS JARDINEIROS	19	18	74	78
8. HALTZARI	18	17	41	70
9. ERI	17	18	52	65
10. ETXAGI	16	18	78	102
11. AUTOBEREZI	15	17	49	62
12. INDARGORRI	15	17	25	41


## 3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SOROPOTROAK	43	18	95	51
2. KIROLZALEAK	40	19	89	54
3. AMOZKIBAR	33	18	51	34
4. EZINLEIKE	33	18	81	50
5. LA JUVE	32	19	60	59
6. NEKROFILIKOS	27	19	75	78
7. MOSKIS	26	18	51	69
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	22	18	55	64
9. EH BITERRAK	17	17	36	67
10. IGANDEKOAK	16	18	46	72
11. SHAKTALE	11	17	36	67
12. ARI ARI	10	18	65	82

## 4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	40	17	84	36
2. GUADALEST	36	17	67	31
3. TXIPIRON	32	16	61	39
4. PJS	31	16	74	42
5. PATXARAN TEAM	29	17	63	49
6. OSINTXU	27	17	62	52
7. MATXAKATEGI	21	16	63	65
8. LABEGARAIETA	18	17	53	76
9. PATA NEGRA	17	17	46	90
10. ALDOKA MALDOKA	12	17	45	66
11. XURRUPAK	4	17	33	101

## PROTAGONISTAK



**PEDRO RICO**

**Antolaketa  
Batzordekoa**

*"Kopan denek  
denen kontra  
jokatuko dute"*

### - Nola doa txapelketa?

- Orain arte orokorrean ondo doa, baina kantxarekin eta talde batzuren ordutegiarekin arazoak ditugu. Arbitroekin ere arazoak izan dira eta datorren urterako arbitro talde finko bat jartzeko asmotan gabilta. Halere, hori asanbladak onartu beharko du.

### - Kopa txapelketarik izango al da?

- Play-offik ez da izango eta liga bukatutakoan kopa txapelketa antolatzeke asmoa dugu. Denek denen aurka jokatuko dute eta denboraren arabera partidu batera edo bira izango da.

### - Taldeei zerbait esateko?

- Geratzen diren partiduetara joateko eta ezin badute, joateko asteartean 6:30etan Kultur Etxera partiduak atzeratzeko. Horrez gain, arbitroei zakarkeria mozteko esango nieke eta legez kanpoko zerbait ikusten badute aktetan jartzeko.

## KOMENTARIOA

**Asteburuan** Ufala eta Ogizunen arteko partiduan gertakari tamalgarriak izan ziren. Bi taldeetako jokalarien artean ohiko lehiaz gain egurra eta hitz potoloak izan ziren nagusi. Hori gutxi balitz, Ogizun taldeko jokalaria batek "espektakulo" penagarria eman zuen. Partidua ikusten zegoen ikusle bat iraindu zuen eta ondoren, ikuslea eta jokalaria borrokan hasi ziren kantxa ring bihurtuz. Arbitroek ez zuten ezer egin eta Antolaketa Batzordeak ere ez du erabakirik hartu. Gogoratu behar da orain dela hilabete Eri taldeko jokalaria bati 2 partiduko zigorra ezarri ziotela arbitroa iraintzeagatik. Ogizuneko jokalaria egindakoa gogorragoa iruditzen zaigu eta ez da lehen aldia gainera. Horrelakoetan neurriak hartu beharko litzuzke Antolaketa Batzordeak.



## EMAITZAK

### 1. MAILA

MADURA INDUSTRIAS GOL-KABIA .....	2 - 3
OGIZUN-UFALA .....	5 - 6
OZAETA-MONGATXURRA .....	3 - 5
BILDURBAREK OPEL/LAM-BAR CANALEJAS .....	2 - 3

### 2. MAILA

UVE BIKOITZA-ARTUSAMAK .....	1 - 0
PAGOMENDI-JAUJA OH ZEREZOS .....	4 - 6
ETXAGI-INDARGORRI .....	1 - 6
KAYAK OS JARDINEIROS-A ZE FLAXA .....	3 - 8
HALTZARI-ERI .....	2 - 6

### 3. MAILA

ARI ARI-MOSKIS .....	2 - 6
LA JUVE-SOROPOTROAK .....	3 - 3
NEKROFILIKOS-AMOZKIBAR .....	5 - 5
EZINLEIKE-KIROLZALEAK .....	3 - 1

### 4. MAILA

LABEGARAIETA-XURRUPAK .....	3 - 6
OSINTXU-FAC .....	3 - 2
ALDOKA MALDOKA-MATXAKATEGI .....	1 - 1

## PARTIDUAK

### LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: Eri-A Ze Flaxa • Kabia
10:00: Bildurbarek Opel/Lam-Kabia • Eri
11:00: Arlotek-Mongatxurra • Bildurbarek

### LARUNBATEAN KANPOAN

09:00: Labegaraieta-FAC • Osintxu
10:00: Osintxu-Matxakategi • FAC
11:00: Pata Negra-PJS • Matxakategi
12:00: Ezinleike-Moskis • PJS
13:00: Ari Ari-Kirolzaleak • Ezinleike

### IGANDEAN BARRUAN

09:00: Haltzari-Uve Bikoitza • Ortzi
10:00: Errotagain-Ortzi • Haltzari
18:00: Bar Canalejas-Ogizun • Ozaeta
19:00: Ozaeta-Madura • Bar Canalejas
20:00: Pagomendi-Naikari Hooligans • Madura

### IGANDEAN KANPOAN

09:00: Aldoka Maldoka-Txipiron • Iganekoak
10:00: EH Biterrak-Iganekoak • Aldoka
16:00: Autoberezi-Etxagi • C. Bergara
17:00: Shaktale-C. Bergara • Patxaran Team
18:00: Patxaran Team-Guadalest • Shaktale



## TXINPARTAK

## Aitor Zabaleta eta Pablo Irizar bikain

Aitor Zabaleta irabazi zuen joan zen igandean Castellonen jokaturako kotxeen mendiigoeretako Espainiako Txapelketako lehen lasterketa. Bere atzetik Luis Martinez sailkatu zen; Andres Vilariñok karrera utzi egin behar izan zuen. Igande honetan Arrateko igoeran izango ditugu. Bestalde, Pablo Irizar hirugarren sailkatu zen Jaraman jokaturako ZX Kopako lehen lasterketan. Martin Egaña 10. sailkatu zen bere debutean.

## Golfa eta tenisa

Udal Kirol Zerbitzuak tenis instruktore ikastaroa antolatu du maiatzaren 3, 4 eta 5erako Oñatiko Zubikoa Kiroldegian. Derrigorrezkoa da federazioko lizentzia izatea. Prezioa: 27.000 pzta. Kirol Zerbitzuko bazkideentzat eta 32.000 pzta. gainontzekoentzat. Bestalde, Golf hasiera ikastaroa ere antolatu du. Arrasateko Musakola kiroldegian izango da. Klase praktikoak eta teorikoak emango dira maiatza eta ekaina bitartean. Prezioa: 10.000 pzta. Kirol Zerbitzuko bazkideentzat eta 12.500 ez direnentzat.

# Gazte mailako txirrindulari onenak bilduko dira zapatuan

**Bihar** eguerdiko ordu bietatik aurrera Bergaran Klasika-Donostia 97 lasterketaren beste edizio bat jokatu da. Bertan gazte mailako estatuko txirrindulari onenak izango ditugu, eta Bergaratik 12 txirrindularik hartuko dute parte.

Lasterketaren irteera, Ibargarai kaletik izango da, eta Ondartzaraino txirrindulariak neutralizatuta joango dira. Antolatzaileek prestatutako zirkuitoak 125 km. ditu eta Udana eta Asentzio gainak pasa beharko dituzte. Asentzioko gaina helmugatik 25 km. tara dago eta adituen iritziz, lasterketa hor erabaki daiteke. Helmuga Ibargarai kalean izango da, eta antolatzaileek arratsaldeko 5etarako txirrindulariak helmugara heltzea espero dute.

## 200 txirrindulari inguru

Lasterketa joan zen asteartean aurkeztu zuten. Bertan izan ziren Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea; Xabier Zabaleta, Kiroletako zinegotzia; Ricardo Iturbe, txirrindulari ohi bergararra eta lasterketaren Ohorezko Zuzendaria izango dena; Jesus Kortabarria, Lokatzako presidentea eta Jose Luis Arrieta, Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoko presidentea. Jose Luis Arrietak lasterketaren garrantzia azpimarratu zuen; "Bergaran Estatuko 15 talde izango ditugu, bakoarrik Balear eta Kana-



Asteartean aurkeztu zen lasterketa Kultur Etxean.

riar irltakoak eta Extremadurakoak falta dira. Gipuzkoatik 21 talde izango dira eta horrelako probekin Donostian jokatu behar diren mundialeterako txirrindula-

tean geratutako 8, Espainiako txapelketan ere 10 lehenen artean geratu ziren. Horrek argi uzten du probak duen maila handia eta Bergarakoak ere maila ona izango du joan

## Iaz Arrasaten jokaturako lasterketan Castilla la Manchako Jose Luis Martinezek irabazi zuen

riak prestatzeko aukera ezin hobea da".

Aurreko urtean Arrasaten jokatu zen lasterketa eta irabazlea Castilla la Manchako Jose Luis Martinez izan zen eta lasterketa horretan 10 lehenen artean irabazi zuen.



zen urtean onenen artean sailkatutako txirrindulari asko Ibargaraiko irteeran izango baitira. Antolaketa lanak Lokatza Txirrindulari Elkarteak, Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargorekin batera egin dituzte eta Bergarako Udalareren laguntza izan du.

Bergarako Udalak deitzen die herritarrei lasterketan Ibargarai kalean kotxerik ez aparkatzeko. Aurretik bertan aparkatuta dutenek ere onenak irabazteko kantu egin behar harko dute.



## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Anaitasuna

Preferentea.  
Igandea, 17:00. Agorrosin.

## ◆ Bergara-Aurrera

Ohorezko mailako jubenilak.  
Larunbata, 16:30. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA  
(FINALERDIAK)

## ◆ Almondigak-Guk

Igandea, 16:00.  
Labegaraieta Kiroldegia.

## ◆ Potzu-Blue Star

Igandea, 17:00.  
Labegaraieta Kiroldegia.

## ESKUBALOIA

## ◆ Bergara-Arrasate

Jubenil mutilak.  
Larunbata, 17:30.  
Labegaraieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Lasalle

Senior mutilak (2. nazionala).  
Larunbata, 19:00.  
Labegaraieta kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bergara-Lasalle

Senior mutilak.  
Larunbata, 16:15.  
Labegaraieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Loyola

Jubenil mutilak.  
Igandea, 11:30.  
Mariaren Lagundia.

## PALA TXAPELKETA

Pala Txapelketako bigarren  
faseko partiduak.  
Larunbata, 14:00.  
Osintxuko frontoia.

# Josetxo Muniategi

## Eskubaloia indartu nahian

**Josetxo Muniategi 8 urte eman ditu BKEko eskubaloia talde nagusia entrenatzen eta aurten lagatzea erabaki du, "ziklo berri bat hasteko" asmotan. Halere, elkartean jubencil taldea entrenatzen eta antolaketa lanak egiten jarraituko du.**

**- Zela baloratzen duzu aurten egindako denboraldia?**

- Zorte txarra izan dugu eta entrenatzeko arazo asko izan ditugu. Plantilla motza izan dugu eta nagusietan bi talde izanda, arazoak handitu egiten dira. Maila ezberdineko jokalaria nahastu ditugu entrenamenduetan, eta behekoentzat onerako izan den bitartean, lehen mailakoentzat entrenamenduaren mailari dagokionez jeitsi egin da.

**- Lesio asko eta garrantzitsuak izan dituzue...**

- Bai, orain arte zortea izan dugu lesioekin, baina aurtengoa desastre bat izan da. Gure maila ez zen azken aurreko postuan gelditzeko modukoa, gauzak normal irtenez gero erdian ibiltzeko arazorik ez genuen izango. 8 partidu gol baten aldearekin galdu ditugu eta lesioek zerikusia izan dute. Gainera, lesionatutako jokalaririk batzuk 6 edo 7 hilabete egin dira jokatu barik. Azken momentuan erantzukizuna hartzen zutenak ziren eta beste batzuk horrelako lanetan jartzea oso zaila da.

**- Datorren urterako zela ikusten duzu talde nagusia?**

- Jokalaririk batzuk taldea lagako duten arren talde polita izan daitekeela uste dut. Halere, ziklo bat bukatu dugu, eta ziklo berri bat hasteko aurrepegi berriak behar dira gauzak ilusioz egiteko. Azken lau urteetan topera ibili gara eta hori igartzen da, ez baitago lehengo ilusioa.

**- Beheko mailetan ba al dago etorkizuneko jokalaririk?**

- Bai, oso jokalaririk onak daude, orain artekoak baino hobekiak. Baina ez dakigu zenbat urteko

epean helduko diren gora. 20-21 urtera arte oso zaila da jokalaririk bat egitea eta ordura arte itxoin egin behar da. Jubencil eta kadete mailako jokalaria teknikoki oso onak dira eta denboraldi polita egin dute.

**- Zer egingo duzu hurrengo urtean?**

- Jubencil mailako taldea entrenatuko dut, eta kluba egitura aldetik indartzen saiatuko naiz. Jokalaririk aldetik 8-9 urterako jokalaria baditugu, baina zuzendari, delegatu eta entrenatzaileen falta nabaria dugu eta jendea lan horietarako animatzen saiatuko naiz.



"8 partidu gol baten aldearekin galdu ditugu".

**"Taldea nagusia laga eta jubencilak entrenatuko ditut aurrerantzean"**



# Kondorra eta hegaluzea

**A**ste honetan bi erretratu zahar ekarri ditugu orrialde honetara, biak ere *pieza* ederrekin zerikusia dutenak.

**Goiko argazkia** 1955eko martxokoa da. Txomin Amasorrainek Labegarietan ateratakoa da eta argazkian kondor batekin agertzen dena, berriz, Emeterio Murgiondo, lehengo Zerrajerako Ekonomatoko langilea.

Emeterio Conchas de Arora joan zen kamioian enkar-guren bat egitera eta susto galanta hartu zuen. Bide erdian argazkian ikusten duzuen kondorra agertu zitzaion eta kamioiarekin harrapatu ondoren, kolpearen eraginez, kondorra akabatu zuen. Hemen oso *pieza* arraroa den hegaztia ekarri zuen Emeteriok bueltan, eta izango zuen bai herriko ehiztariei zer kontatu...

Emeteriorekin batera agertzen diren neska-mutikoak Anton Murua, eta Rafael eta Charo Caballero dira.

**Behoko argazkia**, osterara, orain dela 50 bat urtekoa da eta bertan, Carmen Lekuona "La Bermeana" eta Primitiva Moreno agertzen dira. Azoka plaza gainean zegoen argazkidendakoak ateratakoa da,



eta Carmen eta Primitiva hegaluze eder eta guzti agertzen dira.

Kalez-kale ibiltzen ziren Ondarroatik goizaldean ekarritako arraina saltzen. Goize-

ko zortzietan karroa hartu eta "sardina freskua, oraintxe ekarritakua" oihukatuz, zuten guztia saldu arte ibiltzen ziren Bergara, Antzuola eta Elgetan zehar.

**ZUBIETA**  
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



**zumelaga**  
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio,  
5 BERGARA  
☎ 76 20 21



# BERGARAKO

# OSASUN gida

## ALBAITARIAK:

• ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIO ALBAITARI OFIZIALA)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)	Iribar baserria ANTZUOLA	☎ 76 63 46
• NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47	Koldo Eleizalde, 28	☎ 76 27 97

## ANALISI KLINIKOAK:

• LABORRA ISABEL	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
------------------	------------------	------------

## BARNE MEDIKUNTZA:

• IRIGOYEN VICTOR	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
-------------------	------------------	------------

## DENTISTAK:

• ASTIAZARAN SOLOZABAL	Iparragirre, 1 behea	☎ 76 27 95
• BERGARA HAGIN KLINIKA	Bidekurutzeta 6, 2	☎ 76 05 77
• GOROSABEL J. ALBERTO	Fraiskozuri, 5 behea	☎ 76 56 88
• IRIARTE IDOIA	Artekale 1, 1. C	☎ 76 01 65
• SUDUPE FELIPE	Matxiategi, 18 behea ezkerre	☎ 76 07 66
• GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.	S. Arrieta 3, 2. B	☎ 76 38 54

## FISIOTERAPEUTAK:

• ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)	Masterreka, 7 4. C	☎ 76 43 71
---	--------------------	------------

## GINEKOLOGOA:

• SERRANO DOKTOREA	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39
--------------------	---------------------	------------

## MASAILARIAK:

• AGIRREZABAL JOSE JABIER	Boni Laskurain 1, 2. A	☎ 76 15 74
• AZPEITIA IRUNE	Agorrosingo igerilekuak	☎ 76 20 51
• CASANELLAS JABIER	Boni Laskurain 5, 2. E	☎ 76 03 78
• GIARTZU	Boni Laskurain, 3 behea	☎ 76 35 71
• MARTINEZ LUIS JABIER	Masterreka 7, 3. A	☎ 76 51 18

## MEDIKUNTZA OROKORRA:

• ARCINIEGA JULIO	Boni Laskurain 3, 1. B	☎ 76 37 50
-------------------	------------------------	------------

## PEDAGOGOAK:

• IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)	Simon Arrieta 3, 2. E	☎ 76 26 42
--	-----------------------	------------

## PODOLOGOAK:

• ALTUBE EDURNE	Simon Arrieta, 2	☎ 76 07 84
• AZPIAZU ARANTZAZU	Herri Lagunak, z/g.	☎ 76 41 32

## PSIKIATRA:

• GALLASTEGI PABLO	San Martin Plaza 2, 1. ezkerre	☎ 76 26 64
--------------------	--------------------------------	------------

## PSIKOLOGOAK:

• PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)		☎ 76 14 80
• URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 53 13
• ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 30 76
• FERNANDEZ J.R.	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39



# ARKAZUZ

## **Udaberri-udako eskaintza berezia!!**



**MODELOAK  
ERDI  
PREZIOAN!!**

- Logelak
- Egongelarako liburutegiak
- Sofak
- Gazteentzako logelak



# ALTZARIAK

ARETXABAETA • Araba Etorbidea, 20 • Telefonoa eta faxa: 79 23 51